

KULTURA EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO DATUAK KALERATU DITU EUSTAT-EK
GEHIGARRIA BEREZIA BEROGAILUAK · KIROLA DAVID CONDE EHIZTARIARI ELKARRIZKETA

BARRen

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2003ko urriaren 24a/XI. urtea/462. zkia

URAREN ETA ZABORRAREN GAINEKO ZERGAK %20 IGO DIRA BI URTETAN

Ura gero eta garestiago

"DIRUA NEKEZ ETORRI ETA ERREZ JOAN" (esaera zaharra)



GLASHER ®

ALTZAIRU INOXIDABLEZKO BURLETEAK dira, leihoa istez bat, tentsatu eta zirrikitu guztiak estaltzen dituztenak, haizea, hotza, hautsa eta zarata eragotziz.

Haizea, hatza, houlso eto zorateii kontro

Berogailuetan aurrezpena • ipintzeko azkarra eta garbia • Behin-betiko iraupena



glas control
| **solamenduak**

Informazio gehiago:

Tel. 943 74 30 94 / 102 11 75 16

Ubitarte, 7 behea • Elgoibar



EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAK SUBENTZIONATUA ETA EUROPAKO GIZARTE FONDOAK KOFINANTZIATUA

ENPRESAK ERATZEKO OINARRIZKO IKASTAROA

**NEGOZIO BAT ERATZEKO ASMOA DUTEN UNGABETUEI ZUZENDUA
DOAN**

EDUKIAK:

- Enpresa gestioan ikasketak:
 - Formazio presentziala (54 ordu)
 - Pertsona bakoitzarentzako aholkularitza (3 ordu partehartzailekiko)
- Laguntzak eta subentzioei buruzko informazioa
- Enpresa sortzeko aholkularitza eta tehenengo hilabeteetarako laguntza

LEKUA: Debegesa.

Azitaingo Industrialdea, 3-bis
Gizarte Zentraua.
20600 Eibar

HASIERA EGUNA:

2003ko Azaroak 17.

**Europa
Gizarte
Fondoa**



**Fondo
Social
Europeo**

EUSKO JAURLARITZA

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

INFORMAZIO GEHIAGO

Debegesa. Azitaingo Industrialdea, 3-bis. 20600 EIBAR - Tfnoa.: 943 820 110 - e-maila: prestakuntza@debegesa.com

40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELK ARTEA



32

GAZ1

Aurreko astean esan genizuen moduan, Atxutxiamaikaren helburu nagusia Elgoibarko umeak, jolasa eta euskara soka berean lotzea da. Baina umeak ez dira betirako ume izaten. Edade batetik aurrera, ume izateari laga eta gaztetxo izatera pasatzen dira.

Hala, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiteko helburuarekin, 1998an aurkeztu genuen GAZ-T Aisialdi Taldea. GAZ-T taldearekin euskaraz ere *guai* pasa daitekeela erakutsi nahi diegu gaztetxoei; euskaraz ere *rollitoak* izan ditzaketela; euskaraz ere izan daitekeela *kolega*; lehen parrandak euskaraz egin ditzaketela.

Baina lanean hasteaz bat konturatu ginen gaztetxoena terreno zailagoa dela. Ez dela umeena bezain erraza. Edade honetan beste interes batzuk daudela, eta beste era batera egin behar genuela lan gaztetxoekin. Bestalde, kasu asko eta askotan hizkuntza aldaketa ere ematen da. Umetan euskaraz egiten duten asko, gaztelaniaz berba egiten hasten dira 12 urteren bueltan horretan. Ez da harrizkoa nagusiok euskaraz umei eta txakurrei bakarrik egiten diegun bitartean!!

GAZ-T taldearen bidez euskaraz ere kategorian pasa daitekeela erakutsi nahi diegu gaztetxoei. Baina, lehen esan bezala, gaztetxoekin lan egiteko metodologiak diferentea izan behar du. Gaztetxoak beraiek dira zer nahi duten erabaki behar dutenak. GAZ-T taldean ibiltzen den Ainhoa Mendibilen esanetan, *"Egixa esateko, guk ez dogu asko eskatzen. Euskeraz eta lagun artian momentu onak pasatzia da gure desira. Herritxik kanpora ere gustura urtetzen gera"*. Ea denon artean asmatzen dugun gaztetxoek euskaraz gozatzeko eta bizitzeko modua.

Imanol Larrañaga

iritzia



Errespetua

Kezkatuta nago.

Unesco-k Parisen egin zuen bere azken asanbladan hitzarmen bat sinatu zuen materiala ez den ondare kulturala babesteko: gizakiaren tradizio, ohitura, artisau teknikak, ahozko espresioak eta izpirituaren sormenak, alegia. Flitzarmen hau gutxienez 30 herrialdek onartu beharko dute indarrean egoteko. Honetaz gain, erakunde honen zuzendariak, Koichiro Matsuura Japoniarrak, herrialdeen aniztasuna bereziki azpimarratuko duen hitzarmena prestatu beharko du baita ere.

Hau irakurrita, munduko kultura ezberdinen arteko elkar-bizitzeko errespetua mantendu nahi dela ikusten dut nik, eta benetan txalogarria iruditzen zait.

Guri dagokigunean, euskara dugu, hain zuen, gure ahozko espresioa eta, aklerantzikoa adierazten ez den bitartean, joan den astean astindu ederra jaso zuen, hitzarmen hori sinatzen zen bitartean. Balioko ote dute honelako asmo- oneko ekintzek, bizitzen ari garen konfusiozko garai politiko delikatu honetan euskararen kulturak aurrera egiteko? Hitzez horren ederra den errespetua ikusiko ote dugu ekintzetan kultura ezberdinek bizi duten herrialdeetako bizikidetasunean?

Benetan horrela bada, euskararentzat beranduegi ez izatea espero dut.

Poliki-poliki ari da euskara bere lurrian hazten, haurtzarora igaro ondoren adoleszentzian murgilduta: barrutik sutsu, inguruarekin lehian, koskortuz, heldutasuna lortzeko. Errespetuaren gizartean arazorik ez heldutasuna lortzeko... baina, horrelakoa al da bizi dugun gizartea?

Kezkatuta nago.

Eduarne Bilbao

11101.

KeXak	5
MOtZ MOtZ	8
gehigarria	13
kiRoLAK	20
aGenda	24

Urruzunoren begi ezkutua

Epailea



Duela ez asko, euskaldunen erresumara espainiarren epailea heldu zen, beraien erregimen autoritarioko buruak bidalita. Nazkar izeneko agintari faxistak euskaldunen altxorra konfiskatzea agindu ei zion. Asmo horrekin bila eta bila aritu zen baina ez zuen ezer ere aurkitu. "Non daukazue euskara?" galdetu zuen. Euskaldunek tinko erantzun zioten: "Euskara gure hizkuntza da eta gure bihotzean daukagu. Saiatu arren, ez diguzue sekula ere kenduko". Epailea, ogibidetzat pertsona errugabeak atxilotzea zeukana, Aldrebes eta Dirubila munstroengana, barkatu, ministroengana itzuli zen, burumakur. Aurrez, ordea, euskaldunen hitzak (eraman ezin izan zuen altxorra, hain zuzen) entzun behar izan zituen: "Hoa etorri haizen bidetik! Gure izaera errespetatzen ez duan bitartean ez haiz hemen ongi etorria. Utikan!".

Jon Eugi

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ, NAHI DUGU HITZ ETA JOLAS...

Asteguna, arratsaldeko bostak inguru, Foruen Plaza haurrez beteta.

Askotan igaro izan naiz bertatik, baina aurreko batean, plazan jarrita zegoen amamari bisita egin ostean, kontu bati erreparatu nion: betidanik elgoibartarrak izan diren euskaldunak, euskaraz primeran berba egiten duten andre piloa, borobil batean eserita. Tertulia interesgarria. Eta hizkuntza? Hizkuntza? Gaztelania! Lasai asko euskaraz elkar uler daitezkeen nagusi pila hizkuntza erdaldunean berriketan.

Baina ez. Hor ez da dena bukatzen.

Halako batean, haietako baten semea inguratu, eta ama, euskaraz mintzatu zitzaion:

- "Bai maitxia, lasai. Ointxe nixe, segitxuan lagunduko dizut".

Ondoren, amak, lagunei:

- "Bueno, ahora vengo. Tengo que acompañar a Iker al solfeo".

Ah! Ongi!

Zenbat bider entzun ote dugu, haurrek entzuten dutena ikasten dutela.

Zenbat bider entzun ote dugu, euskara galtzear dagoela eta dakigunok erabili behar dugula.

Alperrik gabiltza semeari euskaraz berba egiten, erdal hizkuntza ematen badiogu eredu gisa.

Izan gaitezen euskaldun; mintza gaitezen euskaraz; ondorengoek euskaraz jarrai dezaten!

A.M.A.
44172644 - V

ASTEKARIA BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

• 943 74 41 12

Publizitatea:

• 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com


Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/larren

ARGITARATZAILA

Clgotarko Izarra

LAGUNTZAILA Elgoibarko Udala KooarouezALEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguren KOLABORATZAILAK Jasoñe Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T., AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik lapeaureola Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



IDANOBAT
PAIDU IJAS HEPPAIENTA



44. GOITI
GRUPO DANOBAL



3:11 kutxa
zur esker

EITARTA

KEXAK

- Herritar batek azaldu digunez, Urtiako begiralekua oso egoera txarrean dago: "San Migelera bidean, Urtiako errebueltan dagoen begiralekua oso egoera txarrean dago. Jarlekuak erdi puskatuta daude, eta ingurune guztia oso zikina egoten da. Jende ugari ibiltzen da pasiatzen ingurune honetan, eta begiralekua konpontzeko moduan dago. Bestalde, Bizkaiko muga dagoen Urkarregi parkeak ere, badauka konpontzeko beharra".

V



- Herriko gaztetxo koadrila batek esan digunez, Elgoibarren gazteentzako oso entretenimendu gutxi dago: "Askotan ez dugu jakiten denbora non pasatu. Gazteentzako entretenimenduak falta dira, parke gehiago jarri beharko lirateke, eta orain daudenak txukun mantendu, kolunpio gehienak egoera kaskarrean daude-eta".



GALDERAK

- Zinera joatea asko gustatzen zaion herritar batek ondorengo galdera luzatu digu: Zergatik ez dago Elgoibarko zinean ikuslearen eguna? Udaleko Kultura Zerbitzuarekin hitz egin dugu, eta esan digutenez, oso esperientzia txarra izan zuten ikuslearen egunarekin: "Larunbat arratsaldetan jarri genuen ikuslearen eguna, jendeari beste alternatiba bat eskaintzeko asmoz, baina talde batek sekulako triskantzak egiten zizkigun Herriko Antzokian. Dena puskatu eta zarata mordo ateratzen zuten. Kexa asko izan genituen, eta ikuslearen eguna kentzea erabaki genuen. Printzipioz ez dago berriro jartzeko asmorik, baina aurrerago agian, aztertuko da egun hau berreskuratu ala ez".

TXALOA

- Herriko gazte batzuk, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte txalotu nahi dute Nafarroa Oinez-era joateko autobusa antolatu zuelako: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko Izarrari, jende gutxi apuntatu arren autobusa antolatu zuelako, eta bide batez, herriko jendea animatu nahi dugu, hurrengoan honelako ekitaldi baterako izena eman dezan".

Barrak, Birak eta Barreak



Atzeritarrak

Gero eta atzeritar gehiago dira Elgoibarren bizi eta lan egiten dutenak. Globalizazioaren aroan gaudela diote adituek eta gure herria ez da herrien arteko distantziak txikiagotu dituen fenomenotik kanpo geratu. BARREn bertan igartzen dugu, asko baitira merkatu kidea lan eskaintzak jarizera erredakziora etortzen diren atzeritarrak. Beste adibide adierazgarri bat: Udal Euskaltegiak atzeritarren seme-alabei euskaraz irakasteko zerbitzua jarri zuen martxan. Gauzak horrela, Elgoibarren lan egiten duten bi atzeritarrekin egon gara euren bizi esperientziak kontatu diezazkiguten. Biak ari dira ostalaritzan lanean. Andres Dorta argentinarra Belaustegi jatetzeko gozoglea da eta Erminio De Carlo italiarra Salento pizzeriako jabea da.

ERMINIO DE CARLO, ITALIARRA

Pizza eta Italia elkarren eskutik doazen bi hitz dira, bata bestearen lagungarri eta osagarri. Elgoibarren Pizza hitza entzutean, Salento hitza datorrigu burura, herriko pizzeria bakarraren izena baita. Agian askok jakingo ez duzuen bertako jabea italiar peto-petoa dela da. Erminio De Carlo (29 urte) italiako hegoaldeko Lecce hirikoa da. Duela urte eta erdi iritsi zen Elgoibarrera eta pizzak eginez ateratzen du bizimodua.

Erminioren emaztea eibartarra da, baina Kanariar irletan ezagutu zuten elkar, "Kanariar Irletan ezagutu nuen emaztea eta Plaentxira bizitzera etortzea erabaki genuen, bertan bizi baitzen bera. Lehen urtea Plaentxin egin nuen eta pare bat hilabetez tailerlean ere egon nintzen lanean, baina hura ez dela niretzako egina konturatu nintzen. Beraz, Elgoibarren pizzeria irekitzea erabaki eta bertara etorri ginen bizitzera".

Mundua ezagutzeko gogoia

Suitzan jaioa den arren, guraso italiarrak ditu Erminiok eta oso txikia zela joan ziren Leccera bizitzera. Salento lurraldean dago Lecce, Italiako mapari so eginez botaren takoia izango litzateke. "Horregatik salento izena. Euskaldun batek Italian jatetxea ireki eta Gipuzkoa deituko balio bezala". Erminiok 15 edo 16 urte zituela Europan zehar bidaiatzeko erabakia hartu zuen, "kultura ezberdinak ezagutu eta jendeak nola pentsatzen duen jakiteko jakin-mina nuen, mundua eta bizimodu ezberdinak ezagutzeko gogoia, alegia. Herri txiki baten bizitzeak ikuspegi oso mugatua eskaintzen du. Bestalde, zortea izan dut, nire lanak bidaiatzeko aukera eman baitit. Ostalaria izanik, zoazen lekura zoazela errazagoa da lana topatzea. Ez dago hizkuntzarik jakin beharrik, eta lekuan lekuko gastronomia, ohiturak eta kultura gertuagotik ezagutzeko aukera eskaini dit lanak. Europatik ibili ostean Kanarietan amaitu nuen bidaiaria eta nire emaztea dena ezagutu. 3 urtez bidaiatzen jarraitu ondoren, sustraiak nonbait errotzeko garaia iritsi zitzaigula pentsatu genuen eta Elgoibarren amaitu dugu".



Elgoibarren oso ondo dagoela aitortu digu Erminiok, "pizzeria ireki aurretik Elgoibar gustatzen zitzaidan edo ez hausnartu eta leku aproposa izan zitekeela erabaki nuen. Pizzeria irekitzearen zergatia, berriz, erraza da; batetik, betidanik ezagutu dudana delako, eta bestetik Elgoibarren hutsune bat zegoela konturatu nintzelako".

Pizzak harrera oso ona izan dutela dio "Pizzarik inoiz jan gabe zegoen jendeak lehen aldiz probatu eta gustatu zaiola aipatu dit".

Pizzen sekretua


Ikastea asko gustatzen ez zitzaionez jatetxe batean hasi zen lanean 14 urterekin eta bertan ikasi zuen pizzak egiten. Pizza egile baten lelo ezagunak pizzen sekretua masan dagoela esaten du, baina

Erminioren iritzi tradizioan dago sekretua, "ez da gauza bera parrilan egindako txuleta bat edo sukalde elektrikoan egindakoa jatea. Ura, gatza eta legamia dira pizzaren oinarriko osagaiak, baina gaur egun osagai berriak eta kontserbanteak sartzen ari dira masak gehiago iraun dezan. Nik neuk osagai gutxi dituzten pizzak ditut gustuko eta zerbait gaineratuz gero, kopuru txikitik izan dadila. Guk 10 pizza ezberdin eskaintzen ditugu, baina bakoitzak bere pizza osatzen du gustuen arabera".

Euskaldun eta italiarren artean antzekotasun asko daudela uste du Erminiok, "Ongi jatea eta ongi bizitzea gustatzen zaigu eta ez zaigu arauen menpe bizitzea gustatzen. Hau dela eta, etxean bezala sentitu naiz eta ez zait batere kosta bertakotzea".

"Mak eg iteko sekretua tradizioan dago"

Erminio De Carlo



Elgoibarko sukaldetan

ANDRES DORTA, ARGENTINARRA

Andres Dorta gozogilea eta pastelgilea da lanbidez eta hitz ere goxo-goxo egiten du bere azentu argentinarraren nahastez. Buenos Aires hiriburuko kanpokaldean jaio zen 34 urteko argentinarra da eta San Migelgo Belaustegi jatetxeko gozogilea da.

Argentinan 4 eta 5 izarretako hoteletan pastelgile buru gisa egin izan duela lan azaldu digu, "bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ostean, sukaldaritza ikasi nahi nuen eta nazioarteko sukaldaritza eta gozogintza ikasketak egin nituen 3 urtez Mar De Platako Hotel Gran Casino Ikastetxean. Neguan Buenos Aireseko hotel handietan egiten nuen lan. Azkenengoz Crown Plaza Panamericano 5 izarretako hotelean. Udan, berriz, Zarautzen antza duen Villagesell herri turistikora joaten nintzen lanera. Argentinako egoera onena ez denez ingurukoek Espainiara joateko esaten zidaten etorkizun hobearen bila. Hango egoera hobea balitz ez nintzateke etorriko, lana eta familia baintuen, baina zertarako itxoin 10 urte gauza batzuk lortzeko 5 urtean lor baditzaitez. Baldintza bakarri jarri nion nire buruari, ez nintzen ezer ziurrik izan gabe aterako.

Lan bat izango nuen ziurtasunaz bakarrik nengoan jaioterria lagatzeko prest. Patuaren halabeharraz Donostian bizi den lagun bat eta Belaustegi jatetxeko Josu Mugerza ezagunak ziren. Kontaktuan jarri eta gozogile bat behar zuela jatetxerako aipatu zidan. "Curriculum"-a bidali eta geroago lana eskaini zidan. Lan ona zela ikusirik, iazko urrian ailegatu nintzen Elgoibarrera. Lehen hilabeteak bakarrik egin nituen, emazteari abokatu karrera amaitzeko bi hilabete falta baitzitzaizkion, baina martxoan emaztea eta alaba etorri ziren".

Postreak ahotan

Une honetan arrakastarik gehien duen postrea italiar jatorriko tiramisua dela aipatu digu Andresek, "Argentinan asko egiten nuen eta hemen ere asko eskatzen didate". Postreez gain, Changurroz beteriko ravioliak eta Argentinarraren haragiak eginiko enpanadak dira bere espezialitatea.



"Argentina euskaldunez beteta dago eta oso fama ona dute"

Andres Dorta

Euskaldunon irudia

Euskaldunok jateko eta edateko dugun moduak harritu zuela aitortu digu Andresek, "Josu Mugerzarekin jatera atera nintzen lehen aldian ardo bat hartu ondoren jatera joango ginela uste nuen, baina gero beste 4 etorri ziren. Txikiteoa ezagutu nuen!". Bestalde, oso jende jatorra aurkitu duela gure artean dio "76tik Bartzelonan bizi den osaba batek Euskal Herrian politikaz inolaz ere ez hitz egiteko esan zidan eta beldur piska batekin iritsi nintzen. Hala ere, norbere begieztatik ezin da aurreiritzik izan eta leku askotan oso irudi txarra dute Euskal Herriaz. Argentina, aldiz, euskaldunez beteta dago eta oso fama ona dute. Gallegoek dendak eta komertzioak jarri zituzten Argentinan, italiarrak eraikuntza arduratu ziren eta euskaldunak lurraz; nekazaritzaz eta abeltzaintzaz. Eta noski, betidanik nekazaritza izan da Argentina aurrera atera duena".

Argentinan oro moduan futbolzale amorratua da Andres. Bere herrialdean Nueva Chicago taldean jokatu zuen Bigarren B mailaren pareko kategorian eta Independiente de Avellanedako jarraitzaile sutsua izan da, "Bocca, River eta Racingekin batera Argentinako talderik onenetarikoak da". Elgoibarren ere izan du futbol grina asetzeko modurik eta C.D Elgoibarko erregional taldearekin entrenatzera joaten da ahal duenean, "oso ondo hartu naute mutilek eta agur bat bidali nahi nieke hemendik. Josu Mugerza eta Belaustegiko familia ere agurtu nahi nituzke eta baita nire bi lagun onenak ere, Juanan Aizpitarte eta Fernando Loiola, bestela akatuko naute-eta".



Uraren eta zaborraren gaineko zergak lo9,5 eta To11 igoko dira 2004. urtean Era berean, Kirol Patronatuko bonoek ere %5 egingo dute gora

Elgoibarko Udal Plenoak datorren urterako ordenantza fiskalak onartu zituen joan zen urriaren 17an. Ogasun Zerbitzuko arduradunak, Ion Zubiaurrek (EAJ) defendatu zituen EAJ eta EA alderdien proposamenak. Berak azaldu zuen bezala, tasa eta zergak %3an haziko dira orokorrean, baina uraren, zaborraren eta Kirol Patronatuaren kasuan igoera handiagoa izango da. Oposizioko alderdiek (PSOE eta PP), zerga guztiak %3an igotzea eskatu zuten, eta hortik gorako proposamenak ez zituzten onartu.



bi urteotan %22an egin du gora zaborrak. Ion Zubiaurrek azaldu zuenez, Debabarreneko Mankomunitateak %17an garestitu dio Udalari zabor biltze zerbitzua. Beraz, herritanei zerga bidez jasotako dirua eta benetako kostuaren arteko diferentzia Udalaren aurrekontuetatik ordainduko da.

Kirol Patronatua

Azkenik, Kirol Patronatuko bazkide kuotak %5ean igoko dira 2004an, eta kuota familiarra %7,5ean. Ogasun arduradunak azaldu zuenez, Kirol Patronatuak

Ura eta zaborra gora

Datorren urtean baso bat ur edatea oso garestia izango da. Ur Kontsorzioak %9,5eko igoera proposatu zuen, eta Elgoibarko Udalak onartu egin du. Igoera hau, iazko gorakadari (%10,6) gehitzen

badiogu, azken bi urteotan %20,1ean garestitu da ura Elgoibarren. Gorakada nabarmen hau, ibaiaren garbiketa eta depuradoraren ondorioa da.

Zaborraren gaineko zergek ere, nabarmen egin dute gora. Udalak %11ko gorakada onartu du 2004rako, beraz, azken

inbertsio garrantzitsuak egingo ditu datorren urtean, besteak beste, Mintxetako igerilekuetarako aldagelak eraikitzea, eta futbol zelaiko belarra aldatzea aurreikusten dira. Honek guztiak 600.000 euro inguruko kostua izango du, eta beharrezkoa ikusi dute bazkideen kuotak igotzea.

Euskalgintzaren aurkako polizia operazioa salatzeako kontzentrazioa izan zen Plaza Handian

Guardia Zibilak euskal kulturgintzaren aurka jo zuen urriaren 17an. Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea, Zabaltzen-en egoitza miatu ostean, 8 lagun atxilotu zituzten. Guardia Zibilaren ekintza hau salatu eta atxilotuei babesa eskaintzeko, mobilizazioak antolatu ziren herri desberdinetan, eta Elgoibar izan zen horietako bat. "Gora Euskal Herri euskalduna, Bai Euskarai" lemapean, kontzentrazioa izan Plaza Handian. 200 lagun inguru bildu ziren guztira. Urruzuno Literatura Taldeko kideek poesia errezitaldia eskaini zuten, eta Igor Sota, Berria egunkariko langileak gertakariaren informazioa eman zien bertan bildutakoiei. Berak azaldu zuen moduan, "Guardia Zibilaren operazio honen aurrean, kezka eta beldurra dira nagusi".



200 lagun inguru bildu ziren kontzentrazioan.

Kontseiluak deituta, bestalde, Manifestazioa izan zen larunbatean Donostian. Elgoibarko Izarrak autobusa antolatu zuen, eta 45 lagun joan ziren.

Honetaz gain, herritar ugari joan ziren kotxe partikularretan ere. Euskal Herriak, berriro ere, tinko erantzun zion Estatu Espainiarraren ekintza honi.

Fatronik enpresak gidatuko du Europar Komisioaren I+D proiektua

Uuropar Komisioak, fabrikazio prozesuen garapenerako proiektua aurkeztu zuen joan zen asteazkenean, urriaren 22an Milanen. Egun hauetan Makina Erremintaren sektoreko mundu feria ospatzen ari da Milanen, eta feria hau aprobetxatu dute proiektuaren aurkezpena egiteko. Proiektu hau, Gipuzkoako Makina Erreminta sektorearen garapenean aditua den Elgoibarko Fatronik enpresak gidatuko du.

Fabrikazioaren inguruan egin diren azterketa guztien emaitzak azaldu zituzten. Hauen artean "Mach

21" proiektua azpimarratu zuten. Fatronik enpresak gidatzen duen proiektu **honen helburua** fabrikazioaren sektoreko alor desberdinak garatzea da zinetika paraleloa erabiliz; besteak beste, aeronautika, automozioa... lantzen ditu. 3 urteren barruan eginiko azterketa izan da, eta 6, 34 milioi eurotako kostua izan du. Lan honetan industria arloko 12 enpresek, inbestigazio zentroek, eta Europar **Batasuneko bost** herrialdeetako institutu eta unibertsitateek hartu dute parte.



Piraten Jaialdia izan zen larunbatean, urriaren 18an, Atxutxiamaiaka Aisialdi Taldeak antolatuta

Elgoibarko Plaza Handia pirataz bete zen joan zen larunbatean, urriaren 18an. Atxutxiamaiaka Aisialdi Taldeak antolatuta, Piraten Jaialdia izan zen arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara, eta ekitaldiari ukitu berezi bat emateko asmoz, begirale guztiak pirataz mozorrotu ziren. 3 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekitaldia izan zen, eta jende asko bildu zela esan digute antolatzaileek. Bertara hurbildu ziren haurrek piratekin erlazioz gaitutako tailer desberdinetan hartu zuten parte, besteak beste, pirata baten kareta egin, aurpegiak margotu,

loritua, begiko partxea, txapela... ikastetxe desberdinetako haurrak elkartu ziren, eta oso giro onean pasatu zuten arratsaldea.



Ordu aldaketa izango da larunbatetik igandera bitartean

Europar Batasuneko arauei jarraituz, ordu aldaketa egin beharko da, bihar, larunbatetik igandera bitarteko gauean. Urriaren 25ean, beraz, ordubete atzeratuko ditugu erlojuak. Honela, goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira. Ordua aldatzeko arrazoi bat energia aurreztea da. Izan ere, energia gehiago

erabiltzen dugu gaua heltzean eta goizetan ohetik altxatzen garenean. Horregatik martxoan egiten da lehen ordu aldaketa; zenbat eta eguzki ordu gehiago izan, etxe barruko argi artifizial gutxiago erabiltzeko. Urriko aldaketa, berriz lehengora bueltatzeko egiten da, neguan eguzki ordu gutxiago baitago berez.

L. 3:00



Gipuzkoako Udalek espero zutena baino %4,8 gehiago jasoko dute Foru Aldunditik

Gipuzkoako Foru Aldundiak izandako sarrera onak direla-eta, Gipuzkoako Udalek diru-laguntza handiagoak **jasoko dituzte**. Aurrelikidazioa egin ostean, hasieran uste zena baino 13 milioi gehiago lortu dituela adierazi dute, beraz, 291,7 milioi euro banatuko ditu guztira. Elgoibarren kasuan, hasierako aurrekontua 4.255.046.000 eurokoa zen, eta orain 205.072.000 euro jasoko ditu.

Datorren **urtetik aurrera**, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzak emateko sistema aldatu egingo du: aurrelikidazioa alde batera utziz, Gipuzkoako Udalek otsailean jasoko dute Aldundiko diru-laguntza guztia. Orain arte, Udalek urte bukaeran jasotzen zuten dirua, eta otsailean, Foru Aldundiak bildutako diruaren arabera, Udalek diru gehiago jasotzen zuten, edo kontrako kasuan, dirua bueltatzea tokatzen zitzaien. Finantza Kontseiluak sistema honi amaiera jartzea erabaki du, eta 2004. urtetik aurrera, otsailean egingo dira banaketak.

EUSKAL HERRIAN HAURRAK IZATEN DITUZTEN EMAKUMEEN %74AK 30 URTETIK GORA DITU

ZURE USTEZ ZEIN DA HAURRAK IZATEKO EDADERIK APROPOSENA?



PAULA REY

27 urte, administraria

Oso zaila da hori esatea, baina 40 urte berandu da. Nere alabak urte eta erdi dauzka dagoeneko, eta neretzako oso edade ona izan da, egoera onean nengoelako.

HERMINDA COLMENARA

58 urte, etxeandrea

Umeak ekartzeko ez dago adinik, norberaren aukeraren arabera ekarri behar dira. Zenbat eta beranduago arrisku gehiago dago, eta hobe da lehenago ekartzea, baina bakoitzak erabakiko du.



VIDAL VARGAS


39 urte, eraikuntza langilea

Ez dago adin aproposik, emakume bakoitzak ikusiko du zein une den egokiena. Hobe da haurrak gazte ekartzea, beraiekin disfrutatu ahal izateko. Adineko pertsonak zailtasunak dituzte seme-alabek gozatzeko.

JUANJO DAVILA

28 urte, prentsadorea

30 urte adin egokia dela uste dut. Gazteak haurrik gabe gozatu behar du bizitza lehenbizi, eta gero umeak ekarri. Baliabideak dituenak lehenago ere ekar ditzake.



MARI KARMEN LIZUNDIA

42 urte, administraria

Ahal baldin bada behintzat, 25 eta 35 urte bitarteko adina da egokiena. Orain gero eta beranduago izaten dira haurrak. Egocra ekonomikoak asko baldintzatzen du.

AINZANE ARANBARRI

31 urte, plantxatzailea

Ez dao esateik. 30 urte ondo dao, hortik gora arriskutsua dela esaten dabe. Ni bigarrena ekartzeko bidian naio eta oso ondo moldau naiz, baina 40ra gerturatu ahala arrisku gehixo egon leike.




Anchústegui

Sanyfer

ESPOSIZIOA ALMAZENA BULEGOA

Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11



)NTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2• 3.sotoa ^{Er} 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Pilar Ikastetxeok Biator Donearen Eguna ospatu zuten urriaren 21 ean

Urtero bezala, Pilar Ikastetxeok Biator Donearen Eguna ospatu zuten joan zen asteartean, urriaren 2lean. Goizean goizetik hasita, jolasak eta kirol ekitaldiak izan ziren ikasle guztientzat. Eguerdialdean futbol eta pilota txapelketako finalak jokatu ziren. Nor baino nor aritu ziren partaide guztiak, beraien trebetasuna demostratu nahian. Txapelketa amaitu ostean, sariak banatu ziren, eta irabazleek urrezko domina jaso zuten.

Joan zen urriaren 12an, bestalde, Pilar Ama Birjinaren Eguna ospatu zuten. Ikastetxean bertan meza entzun ostean, Guraso



Taldeak antolatuta luntxa izan zuten bertan bildu ziren guztiek.

300 ikasle baino gehiagok eman dute izena 2003-2004 denboraldiko Eskola Kirolean



Hasi da dagoeneko 2003-2004 denboraldiko Eskola Kirola. Joan zen asteburuan, urriaren 18an, jokatu zen 1. jardunaldia, eta 300 ikasle baino gehiagok hartu zuen parte. Eskola Kirolaren helburua, ikasleen artean kirola bultzatzea da, eta 8 eta 14 urte bitarteko ikasle guztiei zuzentzen zaie. Ikasturte osoa iraungo du, eta ikasle bakoitzak kirol desberdinetan hartuko du parte. Momentuz, eskubaloia, futbola eta saskibaloia hasi dira, baina aurrerago beste kirol batzuk praktikatzeko aukera izango dute. Besteak beste, atletismoa, eskalada jardunaldia, tenis jaialdia eta arku tiraketa saioa izango dute.

Herri Eskolako Mendi Taldekoak Urnobitzan izan ziren

Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteko Mendi Taldeak eman dio hasiera kurtso berriari, eta aurtengo ikasturtean ere mendi irteera desberdinak egingo dituzte. Lehenengoa joan zen irailaren 28an egin zuten Urnobitza mendira. Madarixaraino autoz igo ziren eta Urnobitza mendiko gailurra igarota, mendi buelta txiki bat egin zuten. 35 ikaslek hartu zuten parte irteera honetan, eta antolatzaileak oso gustura zeuden, izan ere, orain arteko partaidetza handienetarikoa lortu baitzuten. Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, oso ondo pasatu zutela azaldu digute.



ESKOLA KIROLA

EMAITZAK

1. Jardunaldia

FUTBOLA, Mintxetan

■ Infantil mutilak ■

Ikastola B 9 - Pilar A 3

Pilar B 5 - BHI B 7

Ikastola A 0 - BHI A17

• Infantil neskak ■

Ikastola A1 - Pilar A 17

Ikastola B1 - BHI A 4

ESKUBALOIA, Kiroldegian

|| Benjaminaka

Mendaro B 2- Pilar B 0

Mendaro A 0- Pilar A 2

Herri Eskola B **2**- Ikastola A 0

Herri Eskola C **2**- Ikastola B 0

Herri Eskola A 1- Ikastola D 1

Pilar C 0- Ikastola C 2

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

■ Alebin mutilak ■

Herri Eskola A 10 - Pilar B 40

Ikastola A **18** - Pilar A 23

Ikastola B **6**- Mendaro A 18

• Alebin neskak ■

Ikastola A **32** - Pilar A 10

Ikastola C **25** - Herri Eskola A 6

AGENDA

Urriak 25, 2. Jardunaldia

ESKUBALOIA, Kiroldegian

■ Benjaminak -

9:00 Pilar **A**- Pilar C

9:30 Ikastola **B**- Mendaro B

10:00 Ikastola **D**- Herri Eskola C

10:30 Ikastola C- Herri Eskola B

11:00 Pilar **B**- Herri Eskola A

11:30 Ikastola **A**- Mendaro A

FUTBOLA, Mintxetan

■ Infantil mutilak -

10:30 BHI **A**- Ikastola B

11:15 BHI **B**- Ikastola A

12:00 Pilar A- Pilar B

• Infantil neskak -

10:30 Pilar A- Ikastola B

11:15 Pilar **B**- Ikastola A

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

■ Alebin mutilak ■

10:30 Mendaro **A**- Herri Eskola A

11:15 Pilar **A**- Ikastola B

12:00 Pilar **B**- Ikastola A

■ Alebin neskak ■

9:00 Pilar A- Ikastola C

9:45 Pilar **B**- Ikastola A



1977 urteko argazkia dugu hau. Bertan Elgoibarko estazioa ikusten da, obrak egiten hasi zirenean. Argazkian ikusten denez, andenak oso altura gutxi zeukan. Urte honen bueltan aldaketa garrantzitsu bat eman zen, eta F.E.V.E.k Eusko Jaurlaritzari eman zion estazioen ardura. Orduantxe hasi ziren andenari altuera gehiago ematen, eta honekin batera, obra handiak egin ziren Elgoibarko estazioaren inguruan. Juan Mugerza kalean, gaur egun "Pista Beltza" bezala ezagutzen dugun pasealekua egiten hasi ziren, eta baita San Roke auzoko etxebi zitzen obrak. Garai hartan hasi zen inguru honetan herri mugimendua nabaritzen.


2003 urteko argazki honetan erabat aldatuta ageri zaigu paraje hura. Ikusten den bezala, andenak altuera gehiago dauka. "Pista Beltza" amaituta dago, eta jende asko ibiltzen da bertan pasaitzen edo korrika. Etxebizitza berri ugari eraiki dituzte, eta jende asko bizi da bertan. Estazioko eraikuntza, ordea, ez da batere aldatu, berdin mantentzen da. Gaur egun tren linea askoz ere gehiago dago, eta jende asko ibiltzen da Elgoibarko tren geltokian, asteburuetan batez ere. San Roke auzoan mugimendu handia nabari da, jende asko joaten baita Kiroldegira, Mintxetara edota Institutura eta Mekanikara. Denbora ez da alperrik pasatu.

Juanito Gorostiza



ESKERTZA

2003ko urriaren 14an, 79 urte zituela hil zen ANTONIA LAKA LIZARRIBAREN sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



BEROgAILUAK

EHIGARRI BEREZIA



ETXEKO SUA, ETXEKOAK BEROTZEKO

KANPOAN HOTZA EGITEN DUENEAN, GUSTORA EGOTEN GARA ETXEAN, BERO-BERO. POLITA IZATEN DA GAINERA, EURIA EDO IZUGARRIZKO HAIZEA ARI DENEAN LEIHORA HURBILTZEA. NEGUAK BEREZKO DUEN TEMPERATURA HOTZAK AGINDUTA, ETXE ASKOTAN MARTXAN JARRI DIRA ERA GUZTIETAKO KALEFAKZIO SISTEMAK. GEHIGARRI HONETAN HORREN BERRI EMANGO DIZUGU. BAINA AURREZ JAKIN DEZAZUN, ETXEA BEROTZEA EZ DA KONTUA, TEMPERATURA EGOKIAN MANTENTZEA BAIZIK.

LODOSO LEIHOAK

Zusee ketweilea eoissbatto taii4



PVCa

- ALUMINIO TERMIKOA
- POLIURETANOA
- ALUMINIOA - EGURRA

Sigmako industrialdea, Xixilion, 2- 2. pabiloia 3 zenbakia

Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12



Neguk berezko duen temperatura hotzak aginduta, etxe askotan martxan jarri dira era guztietako kalefakzio sistemak. Eskaintza zabala denez, premia guztiak asetzeko moduko sistemak daude salgai.

KALEFAKZIO ELEKTRIKOA

KLIMA HOTZETAN, **1 700** EUROTİK GORA

Estufa edo erradiadore itxurakoak. Berotasuna sortu eta metatzeko energia elektrikoa kontsumitzen dute gauean (%53merkeago baita). Metagailuari egunean zehar beroa dario, kalefakzio premiak eskatu ahala. Estatikoak, kalefakzio iraunkorra duten gela txikietarako dira egokiak, temperatura zehatz-mehatz kontrolatzea beharrezkoa ez denean. Dinamikoak, deskarga-erregulazio hobea dutenez, espazio handiagoetan eta temperatura-erregulazio edo berotasun-ertzaz azkarragoa lortu nahi den tokietan instalatzea komeni da.

✓ Etekin handia ateratzen zaie, ez du oxigenorik kontsumitzen eta gasa eta elektrizitatea elkarren ondoan egoitearen arriskua murrizten du.

✗ Prezio altua, ohiko aparailu elektrikoaren aldean.



KALEFAKZIO ERRADIATZAILEA

KLIMA HOTZETAN, **3000** EUROTİK GORA

Beroa igortzeko sistemarik naturalena da. Lurpetik barrena doazen hodiekin ur beroa daramate. Bero-azalera handiagoa da eta gorputzak ez du nozituko ez berorik ezta hotzik ere, berezko temperatura (35°C-36°C) mantenduko baita.

✓ Ikusezin eta eroso izanik, bero osasuntsuagoa ematen du, eguratasuna ez du lehortzen eta. Giroa ere freskatu dezake, ur beroaren ordez ur freskoa bideratuz gero.

✗ Instalatzeko eta matxurak antzeman eta konponatzeko etxebizitzako zorua altxatu beharra dago. Etxe txikietan ez da komenigarria.



HORMAN BEROGAILUAK
PANELEN BIDEZKO BEROGAILUAK
BEROTZEN DUTEN MARGOLANAK
CALINTEG CONFORT®

Jausoro plaza, 6 • Tel./Faxa: 943 74 00 50 • ELGOIBAR

JAVT ITURGINTZA
V1 BEROGAILUAK

1turria tantaka duzula...
17 659 77 29 32

Erretxindi z/g



ONGI
Iturgintza
GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Olaso Poligonoa, 18 - 68 pabiloia Te1:943 74 28 80



ZALDUA
Iturgintza
GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi, 26 • Tel: 943 74 05 30



Ai LUAK
FRICARRI BERLLIA
BEROg

BERO-PUNPAK

KLIMA EPELETAN, 1200 EUROTİK GORA

Aire egokituko aparailuen antzekoa izaki, sistema honi esker ere urte osoan temperatura egokia goza dezakegu: calefakzioa neguan, aire egokitua udan eta hezetan-suntsiketa tarteko sasoietan, aparailu bakar batekin. Aparailu egokiena da eskualde epel eta beroetan.

Abantaila nagusia lortzen duen eraginkortasun energetikoan datza; kontsumitzen duen energia baino gehiago emateko gauza baita. Gainera, efektu bera erdiesteko, beste zenbait calefakzio aparailuk baino energia gutxiago kontsumitzen du. Bestalde, sute eta leherketen arriskurik ez du sortzen.

Kanpoko temperatura hotza denean, zailtasunak izan ditzake behar den berotasun guztia emateko,



GAS-NATURALA

KLIMA HOTZETAN, 2400 EUROTİK GORA

Erabilienetakoa da, garbia eta eraginkorra izateaz gain, kutsatzen ez duelako. Gas-naturaleko calefakzio indibidualak etxe osoan barrena sakabanaturiko erradiadoreen bidez berotzen du etxebizitza. Erregai eroso da, banakuntza eta metaketa ez baititugu kezka bide. Calefakziorako, ura berotzeko edo elikagaiak prestatzeko erabil daiteke.

Erregai ez da deposituetan bildu behar, gainera temperatura berean mantentzen du etxea.

x Instalazioa jarrita ez duten etxebizitzetan izugarri igotzen da kostua.



SORALUZE
AROSZTEGIA



- "Rotura"dun aluminioa
- PERFILTERMIK modeloko poliuretanoa
- HERIVIET-1 0 PVCa
- Bainuko manparak
- Ateak

FABRIKA

Olasope, 66. ELGOIBAR
Tel/Faxa: 943 74 21 03

ERAKUSKETA:

Santa Ana, 8 Tel: 943 74 36 34 ELGOIBAR
Goiko Kale, 16 Tel: 943 81 02 74 AZPEITIA



Kalefakzio EGOKIENA hautatzea

Etxebizitza eta familia bakoitzaren araberako sistemarik egokiena aukeratzea eginkizun zaila da eta, horretarako hiru faktore aztertzea beharrezkoa da: gure etxearen nolakotasunak, onar dezakegun gehieneko kostua eta bizi garen tokiko klima.

Bestalde, temperatura bero mantentzeko sistemak izatea funtsezkoa da. Horrela, kristal bikoitzak izatea, bero-ihesak ezabatzea eta erregulatzaile-programatzaileak erabiltzeak energia-faktura merkeagotzen lagunduko digute. Famili baten urteko energia-gastua, batz besteko, 1200 eurokoa da eta atmosferara 4,6 tona CO2 igortzea dakar.




Espainiako etxebizitzaren %34ak gas naturala darabil berotzeko energia gisa, sistema honek berotasun iraunkorra mantentzen baitu. Katalunia, Madril, **EAE**, Kantabria eta Balearrak dira, hurrenez hurren, etxea berotzeko gas naturala gehien erabiltzen dutenak.

Klima samurragoa duten erkidegoek elektrizitatea aukeratzen dute, guztirako energia kontsumoaren %12an kokatuz. Andaluzia, Murtzia, Extremadura eta Balear Uharteetan, batik bat, elektrizitatea dute bero iturri.

Premia guztiak asetzeko moduko eskaintza dago merkatuan. Energia berriztagarrien aldeko apostua egiten hasiak dira batzuk, negutegi-efektua sortzen duten gasen emisioak desagertarazteko.

AUKERATZEKO ORDUAN KONTUAN IZAN

- Etxebizitza eskualde hotz batean dagoen
- Etxebizitza eskualde epel edo bero batean dagoen
- Instalazio-obrak egiteko ahalbide-teknikoak
- Hornikuntza
- Mantentze-lana
- Ekologia



A_1,13ERDI

ERREKADISTA 17 609 264 705

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK

- Paketeak
- Sobreak
- Gestoria
- Komertzioa

GESTIOAK

- Ogasuna
- Trafikoa
- Merkataritzako erregistroa
- Diputazioa
- Merkataritzako - ganbera

r Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 Tel: 943 74 00 15



Farmazia - okindegia

26

24 igandea

Eusko Tren

DONOSTIA-BILBO

Egunero

DonostiaMARA 5.45 06.45... 20.45

Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

Eusko Tren

ALTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo 06:00 7.00... 20.00

Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

ELGOIBAR

SIGMA $\overleftarrow{\text{dir}}$ ARRIAGA

URIZZ-A		ARRIAGA - SIGMA	
8:00	8:10	8:10	8:20
9:25	9:35	9:55	10:05
11:10	11:40	11:10	11:20
11:20	11:50	11:40	11:50
12:10	12:40	12:10	12:20
12:20	12:30	12:40	12:50
13:10	13:20	13:10	13:20
13:20	13:30	18:10	18:20
18:20	18:30	19:00	19:10
19:10	19:20		

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
I kastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Elgoihartarren %60,9a euskalduna izan arren %33,51 bakarrik aritzen da euskara hutsez etxean

Herritarren %45,91ak euskara du ama hizkuntza

Eustat, Euskal Estatistika Erakundea-k 2001 urteari dagozkion euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datuak argitaratu berri ditu. Azken erroldaren arabera (2001ean egindakoa), Elgoibarrek 10.615 biztanle ditu. 1996 urteko erroldaren arabera, aldiz, Elgoibarren 10.836 bizi ziren.

Ezagutzari buruzko datuak emateko EUSTATEk, betiere, bi urtetik gorako biztanleak hartzen ditu kontuan. Horrela bada, 2001 urteko eta 1996 urteko erroldak alderatzen baditugu, A taulan ikus daitezkeen emaitzak izango ditugu. Bertan ikusten denez, 6.225 elgoibartar (%60,9) dira euskal hiztunak, 1.315 lagun dira ia euskaldunak eta 2.679 erdaldunak. Debabarrenan ere antzerakoak dira datuak, %60,1 baita euskalduna. Gipuzkoan aldiz, biztanleriaren %51,4 da euskal hiztuna.

Bestalde, elgoibartarren ama hizkuntzari dagokionez, 2001 urteko errolda eta 1996 urtekoa alderatuz gero B taulan ikus daitezkeen emaitzak lortu ditu Eustat-ek.

Etxeko erabilerari buruz, C taulako datuak izan dira Estatistika Erakundeak argitaratu dituenak. Azkenik, euskaldun alfabetatuei dagokienez, 2001 urteko erroldako datuen arabera, euskaldunen %88,44 da alfabetatua. 1996 urteko erroldaren arabera, berriz, euskaldunen %74,98 zen alfabetatua. Nabarmen egin du gora, beraz, alfabetatu kopuruak.



2001. urtean euskaldunen %88,44a zen alfabetatua.

A :			
ERROLDAK	Euskaldunak	ia euskaldunak	Erdaldunak
2001	%60,9 (6.225)	%12,8(1.315)	%26,2(2.679)
1996	%59,2	%12,8	%27,9

AMA HIZKUNTZA				
	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
2001	%45,91	%45,97	%6,77	%1,33
1996	%46,77	%44,22	%7,08	%1,91

C TUTA ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA				
ERROLDAK	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
2001	%33,51	%48,72	%17,18	%0,57
1996	%30,87	%49,60	%18,44	%0,66

Salento Pizzeria eta taberna
SanFrantzisko kalea, 48
Tel.: 943 74 01 96

EKANOSA
 Errosano, 30
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

50 lagunetik gora apuntatu dira Haizea Emakume Taldeak antolatutako ikastaroetan

Sevillana eta Kubako dantzak izan dira arrakastatsuenak

Elgoibarko Haizea Emakume Taldeak ikastaro desberdinak antolatu ditu hilabete honetan, eta antolatzaileek azaldu digutenez, jende askok eman du izena: "50 lagunetik gora apuntatu dira ikastaroetan, oso jende desberdina da, eta oso pozik gaude jendearen erantzunarekin". Haizea Emakume Taldekoek azaldu digutenez, beraien helburua lanik egiten ez duten emakumeak etxetik ateratzea da: "Etxean dauden emakumeei zuzendutako ikastaroak dira. Lan egiten dutenek, normalean ez dute izaten esku lanak egiteko denborarik".

Pertsonen garapena lantzeko ikastaroan jende dezente dabilela azaldu digute. Eskarne Larrinaga psikologoak eskaintzen du ikastaro hau, eta pertsonen izakera, garapena eta pertsonalitatea lantzen ditu. Astean behin eskaintzen ditu hitzaldiak, eta gai desberdinak lantzen ditu. Honi lotuta, hilean behin bideo forum-a antolatzen du Haizeak.



Antolatzaileek esan digutenez, jende askok hartzen du parte bideo forum-ean, eta oso giro ona sortzen da: "Kultur Etxean biltzen gara pelikula bat ikusteko, eta gero Eskarne Larrinagak bideratuta, filmaren analisia egiten dugu". Gai desberdinak jorratzen dituzte, baina pelikulek emakumearekin zerikusia izaten dute: "25 lagun inguru biltzen gara, eta pelikula amaitutakoan bakoitzak bere iritzia ematen du. Tertulia oso politikak sortzen dira".

Honekin batera, lora lehorrekin eskulanak egiteko ikastaroa antolatu dute, eta 8 lagun apuntatu dira bertan. Loreak lantzeko ez da urtarorik egokiena, beraz, irakasleak berak bildutako lorekin egiten dute lan. Udaberrian berriz antolatzeko asmoa daukate, partaideek loreak biltzetik hasi eta prozesu guztia ikas dezaten.

Arrakastatsuen dantza ikastaroa

Ikastaro guztietan ematen du izena jendeak, baina Sevillana eta Kubako dantzen ikastaroa da arrakastatsuenak: "jendeari gehien gustatzen zaion ikastaroa da, oso ondo pasatzen dute".

Haizea Emakume Taldea duela zazpi urte inguru sortu zen, eta hasieratik hasi zen emakumeei zuzendutako ekitaldiak eta ikastaroak antolatzen: "Emakundek eta Elgoibarko Udalak laguntzak ematen dizkigute ikastaroak antolatzeko, eta jendeak erantzuten duen bitartean, aurrera jarraituko dugu".

Jende gutxi ibili da Kokoe Elkarteak antolatutako komiki erakusketan



Jose Maria Aguadok irabazi du Elgoibarko VIII Komiki lehiaketa.

Joa zen urriaren 19an itxi zen Kokoeak antolatutako komiki erakusketa, eta antolatzaileek esan digutenez, aurten oso jende gutxi ibili da: "Ez dugu publizitaterik egin, eta oso jende gutxi etorri da erakusketa ikustera". 10 egun inguru iraun ditu erakusketak, eta larunbat arratsaldetan jende dezente gerturatzen zen arren, orokorrean ez omen du erakusketak arrakasta gehiegirik eduki. Kokoekoek esan digutenez, komikiak ez dauka Elgoibarren arrakastarik: "Komiki lehiaketan parte hartu zuten komikiak jarri genituen ikusgai, baina jendeak ez ditu preziatzen". Bestalde, Kokoek ateratako fanzineak oso ondo saldu direla kontatu digute.

Inaugurazio egunean, irabazle guztiak bildu ziren Kultur Etxean. Valladolideko Jesus Maria Aguado (1. saria), Bartzelonako Jose Maria Delgado (2. saria), Madrilgo Tomas Cogollo (3. saria) eta akzesit berezia jaso zuen Joseba Larretxea irundarra. Kokoekoek azaldu digutenez, ez zen batere erraza izan irabazlea aukeratzea: "33 lan genituen irabazlea aukeratzeko, eta gauza asko eduki behar izaten dira kontuan, gidoia, marrazkia... ez da lan erraza".

Kokoek bi urtetik behin antolatzen du normalean komiki lehiaketa, baina esan digutenez, datorren urtean komiki jardunaldiak edo beste lehiaketaren bat antolatzeko asmoa daukate, komikiari bultzada apur bat emateko.

Ikirolak

David Conde, ehiztaria

"Arrakastaren %80a txakurrari dagokio eta 1020a ehiztariaren trebeziari"

• **Iaz lortutako txapela defendatuko duzu Gipuzkoako Ehiza Xehetxapelketan. Zer itxaropen dituzu?**

Bai, Valdorban (Nafarroa) izango da azaroaren 9an. Momentuz zaila da esatea, ez baitut tokia ezagutzen. Hamar zonaldetan banatuta dago eta bata bestearengandik oso ezberdinak dira. Hurrengo egunetan lekua ezagutzera joateko asmoa dut.

• **Txakur gazteagoak erabiltzen hasi zara, ezta?**

Bai, eta horixe da Gipuzkoako Txapelketarako dudan zalantza nagusia; txakur gaztearekin atera ala zaharragoarekin. Elgoibarren eta Eskualdeko txapelketan urte eta erdiko bi txakur gazte prestatzen aritu naiz. Agian gazteegiak dira eta bietako bat gainera, araldian sartzekotan dago. Araldian daudela ezin dute txapelketan parte hartu.

• **Pena emango du txakurrez aldatu beharrak, ezta?**

Bai, noski, baina txakur berriak prestatzea ezinbestekoa da. Iaz esaterako "Nela"rekin sailkatu nintzen Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko, baina astebete lehenago araldian sartu eta "Lian" aitaren txakurrekin hartu nuen parte. Sasoirik onenean ez zegoen arren, irabaztea-lortu genuen. Horregatik ari naiz 3 txakur gazte prestatzen. Hauekin beste 6 edo 7 urtez topera aritzea espero dut. "Nela" ehizarako bakarrik erabiltzen dut eta gurekin bizi da etxeko bat gehiago moduan.

• **Zer ezberdintasun dago txakur gazte eta zaharragoen artean?**

Txapelketetan aritzeko 3 eta 9 urte bitartekoa da adinik egokiena. Gazteak gehiago usaindu eta errazago ibiltzen dira

mendian, baina adinak ematen duen eskarmentua falta zaie. Txakur zaharrek arazoa dut, asko eta bizkor korri egiten dudanez, errebentatu egiten baitituz.

• **Zein da txakurraren funtzioa txapelketetan?**

Arrakastaren %80a txakurrari dagokio eta %20a ehiztariaren trebeziari. Usaimen apartaz baliatuz ehiza bistaratzea da txakurraren lana. Gero, ehiztariak botatako piezak berreskuratu behar ditu.

"Txakur emeak maitakorragoak, biziagoak eta hotzanagoak dira"

• **Arrak ala emeak dira hobeak?**

Guk beti emeak izan ditugu. Argiagoak, maitakorragoak, biziagoak eta hotzanagoak dira. Gainera, urte eta erdirekin ehizan hasteko gai dira. Arrak, aldiz, ez daude prest hiru urte bete arte. Burugogorragoak dira larrua jotzea bakarrik dute buruan.

• **Zer ezaugarri behar ditu ehiztari on batek?**

Txoriek ez ihes egitea da garrantzitsuena, aukerak aprobetxatzea, alegia. Honez gain, konstantzia eta erritmo bizia beharrezkoak dira. Gipuzkoako Txapelketak goizeko 9:00etatik 15:00ak arte irauten du. Iazkoan 12 pieza aurkeztu nituen kontrolean eta epea amaitzeko 10 minuturen faltan bota nuen garaipena eman zidan hamabigarrena.



• **Zein adinekin bota zenuen lehen tiroa?**

8 edo 9 urterekin izango zen. Zainetan sartu zitzaidan ehiza eta gaurdaino. Pentsa, abutzuan lan egiten dut urrian eta azaroan goizez jai izateko. Oporrak ehizaren arabera moldatzen ditut.

• **Zer ehiza mota duzu gustukoena?**

Eper gorri basatia da gehien gustatzen zaidana, ehizatze oso zaila baita. Beti begi bistan izan arren sei ordu ibili zintezke ehiza esparru batean bakarrik ehizatze. Hemen aldiz, mendira joan eta oilagor bakar bat ikusi gabe itzuli zintezke etxera. Ehizarik ikusi ere ez egitea da ehiztari batentzat gogorra.

• **Ehiztari asko dago Elgoibarren, ezta?**

Bai, afizio izugarria dago. Eibarko Txapelketan adibidez 7 lagun bakarrik aurkeztu ziren eta Elgoibarren hogeitahi, gehienak gazteak.

• **Zenbat titulu dituzu?**

Elgoibarko Txapelketa birritan irabazi dut. Gipuzkoako behin eta Espainiakoan bostgarren izan nintzen. Bestalde, Elgoibarko eta Eskualdeko Txapelketa Urnobiletan egin beharrean ehiza esparru batean jokatu beharko litzatekeela esan nahi nuke. Eibartarrek Zanbranako (Araba) ehiza esparruan egiten dute euren. Urnobiletzak ez ditu beharrezko baldintzak betetzen. Arriskutsua da horrenbeste ehiztari, txakur eta epaile pinadi eta garo artean sartzea. Ehiza esparruak argiagoak eta zabalagoak dira.

52 lagunek dastatu zituzten Arabar Errioxako ardoak Morkaikorekin

Bestalde, Karakatera igoera azaroaren 16an izango da



Autobusa bete-beteta. 52 lagun, abiatu ziren pasa den zapatuan goizeko 7:00etan Plaza Handitik Arabar Errioxa aldera. Helburua Arabako probintzian dagoen Sierra Kantabria mendikateko Cruz del Castillo (1.432 m.) mendia igotzea. Igo, arazorik gabe igo zutela aipatu digute Morkaiko Mendizale Elkarteke kideek, baina behe-lainoaren erruz mendi gutxi ikusteko aukera izan zutela gaineratu digute. Gero etorriko zenaren aurrerapena izango zen. Errioxako Badaran herrian dagoen David Moreno bodegan jan eta edan zuten 3 orduko ibilaldiak lagatako gosea

eta egarria asetzeko. Baina noski, izan zen berriz behe-lainoaren presentzia nabaritu zuenik ere. Oraingoan Arabar Errioxako ardo goxoen eragin zuzenaz lausotu zitzaion begirada bati baino gehiagori. Pentsa, egun honetan ateratako argazkirik bidaltzera ere ez dira ausartu, eta artxiboko bat sartu behar izan dugu. Morkaikoko zuzendaritzakoek azaldu digutenez, trikitixa doinuen laguntzaz amaitu zuten mendia eta Arabar Errioxako gastronomia uztartu zituen eguna. Morkaikok antolatuko duen hurrengo ekintza Karakateko igoera izango da azaroaren 16an.

EgoiU Mora 23 urtez azpiko Euskadiko judo txapelkun

Espainiako Txapelketan hartuko du parte azaroaren 29an

Fgoitz Mora elgoibartarrak garaipenen zerrenda luzean gaineratzeko titulu berria eskuratu berri du. Oraingoan, 23 urtez azpiko Euskadiko Judo Txapelketan lortu du arrakasta, txapelketa irabaztea lortu baitu 21 urteko judoka gazteak. Erreterriako kiroldegian jokatu zen txapelketa eta "ippon" bidez irabazi zituen konbate guztiak Egoitzek. Finalean Bizkaiko ordezkaria izan zuen aurrez aurre elgoibartarrak eta aise garaitu zuen. Garaipen honi esker iaz lortu zuen Espainiako txapelkun titulua berritzeko aukera izango du. Vigon jokatu da 23 urtez azpiko Espainiako Judo Txapelketa azaroaren 29an eta 30ean.



EMAITZAK

Futbola

Pedrusko 8 - Intxurre 0 (1 erreg.)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa

Zumaia 22 - Lagunak B 3 (Kad.)

Ilunpe 22 - Lagunak A 16 (Kad.)

Lagunak 7 - Intxaurren 22 (Jub.)

Beloki 22 - Lagunak A 16 (Nag.)

Eskubaloia

Pagoaga Elg. 8 - Askartza 17 (Kad. nesk.)

Urdaneta 29 - Tecnomeca Elg. 10 (Kad. mut.)

Cometel Elg. 15 - Askartza 25 (Jub. nesk.)

Urdaneta 28 - Pneumax Elg. 15 (Jub. mut.)

Sanlo Elg. 20 - ITE Hondarribi 23 (Sen mut.)

IES Construcción 29 - Tecni. Elg. 23 (Sn. mt.)

Areto Futbola

Laskorain 6 - Kenci Elg. 3 (Nazional B)

Lanbroa 2 - Alegia 3 (2. maila)

Magefesa 7 - Izarra Vitoria 5 (Jub.)

Lasarte B 7 - Lojantzi 3 (Jub. Gip.)

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Zapatua, 25

16:00 Kenci - GSI Bilbao (Nazional B)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 25

16:00 Elgoibar - Bergara (1. Erreg.)

18:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Jub.)

Domokia, 26

10:30 Elgoibar - Aitzgorri (Aleb.)

12:00 Elgoibar - Eibar (Inf.)

Esku pilota

Barixakua, 24

21:15 Lagunak A - San Esteban (Kad.)

22:00 Lagunak - Ilunpe (Jub.)

22:30 Lagunak A - Lazkao (Nag.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 25

17:30 Tecni. Elg. - Escolapios (Sen. mut.)

Igeriketa ikastaroak

Olaizaga kiroldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu Olaizaga kiroldegian. Ikastaroak haur eta helduei zuzenduta daude eta azaroaren 3an, astelehenean, emango zaie hasiera. Ikastaroetan parte hartzeko Olaizaga kiroldegian eman behar da izena urriaren 31 baino lehenago.

OHARRA:

Merkatu txi kirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Lana

ESKAERA

✦ Esperientziadun kamareroa tabernan edo kafetegian lan egiteko prest. Ordu-tegi flexiboa daukat. **tr 943 74 46 34**

*Mutila buzoneo lanak egin edo publizitatea loanatzeko prest. **tr 678 212 800**

✦ Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. **tr 626 91 49 04**

✦ Emakumea egun erdiz garbiketa lanak egiteko prest. **tr 639 88 20 04**

• 36 urteko emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **tr 943 03 08 45**

*Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka ere bai. **tr 660 78 00 73**

✦ Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egiteko prest. Egun solteak. **tr 943 74 22 01**

✦ Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **tr 943 75 24 31/600 89 06 41**

✦ Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **tr 660 91 94 23**

• Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. **tr 686 10 85 52**

✦ Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. **tr 943 74 36 38**

*Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egin, umeak zaindu edo ostalaritzan lan egiteko prest. **tr 615 71 34 40 (Mercedes)**

*Mutila kamarero lanak egiteko prest. **tr 615 71 34 40 (Pedro)**

✦ Erizain laguntzailea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. **tr 943 74 37 60/678 43 76 33**

ESKAITZA

• 40 urtetik gorako emakume euskalduna behar da denda batean arduradun lanak egiteko. **tr 699 95 41 54 (Migel)**

• Neska gaztea behar da, abenduaren 12tik urtarrilaren 12ra dendan lan egiteko. **tr 699 95 41 54 (Migel)**

✦ Neskatxa bat autobusera eraman eta jasotzeko pertsona behar da. **tr 943 74 29 54**

✦ Ostiral eta larunbatetan barran lan egiteko kamarero euskalduna behar da. **tr 943 74 31 17**

*Kamareroa behar da. **tr 943 74 42 65**

Etxebizitzak

✦ Etxea salgai. Arregitorren egiten ari diren etxeetako bat. 65m², dena kanpora begira. **tr 646 38 56 56**

• Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldia eta despentsa. Eguzkitsua. **tr 17 636 22 31 42**

✦ Pisu salgai Mendaron. Egongela, sukaldia, 2 logela, komuna eta balkoia. **tr 606 86 10 07**

✦ Etxebizitza salgai San roke auzoan, Arregitorren. 90 m², 3 logela, sukaldia, saloia, bi komun eta bi balkoi. Trasteroa ganbaran. Guztiz berritua eta kalitatezko muebleekin (aukeran). **tr 616 78 51 20 (arratsaldez deitu)**

✦ Pisu salgai Urasandin. 111"20-4.F. **tr 943 74 17 01**

• Etxebizitza salgai herri erdian. 3 logela, altzariekin, berritua. Bizitzera sartzeko moduan. **tr 661 42 60 77**

✦ Neskak pisua edo logela hartuko luke alokairuan. Konpartitzeko. **tr 13 605 74 13 70**

✦ Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. Sukaldia, 3 logela, komuna eta bi ganbara. **tr 665 70 30 24**

• Pisu erosiko nuke donostian. Ez zait inporta obra egiteko baldin badauka. **tr 699 13 40 81 (Ainhoa)**

✦ Logela alokatzen da, sukalde erabilpean barne, San Roke auzoan. **tr 943 74 88 53**

Garajeak

*Bi garaje itxi salgai kiroldegi ondoan. **tr 626 60 71 55 (Marian)**

*3 kotxe sartzeko garaje itxia salgai kiroldegi aurrean. **tr 608 39 43 05**

*Garajea salgai Urasandin. (Anaiak edifizioan). **tr 620 43 14 80 (18:00etatik aurrera deitu)**

Bestelakoak

*Urrezko pultsera bat galdu nuen pasaden astean. Ane ipintzen du. **tr 943 74 23 53**

✦ Urriaren 4an, larunbatean, Malape tabernan norbaitek trajearen txaketa amerikarra konfundituta eraman zuen. Beste txaketa amarikarra nik daukat. **tr 943 74 28 93**

Salerosketak

*Pentax P-30T Reflex argazki kamera salgai. 28-80mm olojetiboa. Flash eta kamara zorroa opari. Prezio negoziagarria. **tr 676 92 94 53 (21:00etatik aurrera)**

sTechmics SL-1210 MK2 Mesa Eccler SMAC 42 pletina salgai. 50 disko opari. **tr 617 98 15 72**

*Opel Astra salgai. Gasolina 1.600 G.L., 100 cv, 4 atekoa. 9 urte, egoera oso ona. 2.300 euro. **tr 636 04 70 28 (Ane)**

• Opel Corsa Sport salgai. 1.4, 16v. Llantak, lehio igogailu elektrikoak, airbag... Prezio onean. **tr 699 34 70 40**

✦ Play Station 1 kontsola salgai. Txiparekin, mando bat, memory card eta 18 joku. **tr 626 02 71 93**

✦ Erreperiderako bizikleta salgai. 3 plato, aluminiozko kuadroa. Berria. Prezio interesgarria. **tr 652 72 76 31**

✦ Citroen AX, 1500 diesel autoa salgai. 5 urte. **tr 649 61 31 34**

*Seat Ibiza GT TDI autoa salgai. 110 zaldi. 55.000 km. 99koa. **tr 650 89 79 85**

*Tresiloa eta bi butaka salgai. Egoera onean, berriak, otsailean erositakoak. **tr 17 943 74 06 85**

Partikularrak

✦ DBHko klase partikularrak ematen dira. **tr 943 74 16 88**

*Ingeleseko eta euskarazko klase partikularrak emateko pertsona behar da. 1-2 pertsonentzako. DBH2 maila. **tr 699 820 820**

✦ LH4ko umeari klase partikularrak emateko pertsona arduratsua behar da. Astelehenean ostegunera. **tr 626 23 75 70**

✦ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. **tr 943 74 31 67 (Nekane)**

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
Tel. 943 741 461

Ordutegia:
Asteartetik-ostiralerat 16:00-20:00

Agurrak

• Zorionak Ion Garateri hilaren 30ean 16 urte beteko dituelako Danel eta Paulen partez.



• Zorionak **Nora Rey**, hilaren 18an, 5 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



*Zorionak **Josu Lariz!** Mila kilometrotara bahituta egon arren, har ezazu Askatasunaren partez besarkada beroena. Eutsi gogor.

BEKAK

Nekazaritza-ingurunea

Sustalde Fundazioak garapen jasangarria bultzatuko duten proiektu berritzaileak saritzeko helburua duen beka sortu du, nekazaritza-ingurunearen berrikuntza eta garapenarekin konprometituriko pertsonen lana sustatzeko eta gazteak nekazaritza-inguruneari buruzko teknologia berrietan trebatzeko. Bekak urtebeteko iraupena izango du, hileko 7.200 euro, eta Fundazioaren egoitzan garatu beharko da. Baldintzak: Nekazaritzako Goi Mailako Ingeniaria edo Ingeniari Teknikoa, Biologoa edo Albaitaria izatea eta ingelesez ondo jakitea. Epea: urriak 31

Soin Hezkuntza

Eusko Jaurlaritzak 03-04 ikasturterako Soin Hezkuntzako Euskal Erakunde 2. eta 5. kurtsoen artean matrikulatuta dauden ikasleentzako lankidetzak beka antolatu ditu. Beken onuradunek 6 hilabetez lan egin beharko dute, egunero 3 orduz. Bi beka-mota izango dira: euskarako kabinetean lan egiteko 2 beka eta zentroko dekanok egindako programaren arabera laguntzeko 9 beka. 1.966 euro gordin beka bakoitzarentzat. Epea: urriak 27

IKASTAROK

Formatzaileen prestakuntza

Donostiako SAREAK erakundeak Formatzaileen Prestakuntzarako Ikastaroa antolatu du Gipuzkoako gizarterakunde desberdinetan parte hartzen duten pertsonen zuzenduta (zuzendariak, kirolaren, kulturaren edota gazteen esparruan lan egiten duten boluntarioak, e.a.) Ikastaroa Donostian izango da, dohainik, azaroaren 3tik 13ra. Epea: urriak 29

Tratu txarrak

Haurralde Fundazioak Haurren Tratu Txarrei eta Adingabeen Sexu Abusuei buruzko ikastaroa antolatu du Donostian duen egoitzan, urriaren 30ean eta 31n. Ikastaroan ondorengo gaiak landuko dira: arrisku-faktoreak, prebentzioa, tratamendua eta hurbiltzea. Epea: plazak bete arte

LEIRAKITIIK

Argazkiak

Leioiko Udalak XVII. argazki-lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkez ditzake gehienez, zuri-beltzean nahiz koloretan, banaka edo multzoan. Gaia librea izango eta 30 em x 40 cm-ko euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira. 1.490 euro saritan. Epea: azaroak 14

Ipuinak

Bilboko Udalak Gabriel Aresti XXI. ipuin-lehiaketa antolatu du. Bertara 15 orrialde baino gutxiagoko ipuin original eta argitaratu gabeak aurkez daitezke. Bi modalitate: euskara eta gaztelania. 3.900 euroko sari nagusia eta 1.800 euroko bi akzesit. Epea: urriak 31

Pintura

Donemiliagako udalak VIII. pintura-lehiaketa antolatu du. Egile bakoitzak teknika, neurri eta gai libreko nahi haina lan aurkez ditzake. Saritutako lanak Donemiliagako Udalaren esku geldituko dira. 1.250 euro saritan. Epea: azaroak 3

Umore grafikoa

Barakaldoko Udalak Umore Grafikoko Nazioarteko III. Lehiaketa antolatu du, "teknologia berriak" izenpean. Parte-hartzaileek teknologia berrien gaineko (internet, biologia, espazioa, telekomunikazioak, medikuntza...) umore grafikozko marrazkiak aurkeztu beharko dituzte. Bi modalitate: marrazkiak eta animazioak marrazkiak. Marrazkiak estatikoak zein bizidunak izan daitezke, koloretan zein zuri-beltzean. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Lan eta pertsonaia originalak eta argitaratu gabeak izango dira, euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke eta hitzik gabeko lanak ere onartuko dira. Epea: azaroak 3



• Zorionak **Yeray**, hilaren 19an, 4 urte bete zenituelako. Familiako guztien eta bereziki, Ibonen partez.



Zorionak **aitaxo** datoren astelehenean urteak beteko dituzulako. Danel, Lara eta amatxoren partez.



• Zorionak **Abdel**, gaur, hilak 24, 5 urte bete dituzulako. Gurasoen eta aiton-amonen partez.



• Zorionak **Aitor**, hilaren 28an, 6 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez, ondo pasa eguna.



• Zorionak **potxolita!** Ze uste zenuen ahaztuko genuela? Ba ez. Segi horrela ta ondo pasa zure eguna. Muxu asko zure lagunen partez.



• Zorionak **gure Marta!** Espero dugu zure egunean ondo pasatzea eta formal ibiltzea. Muxu asko Mireia eta Iratxeren partez.



*Zorionak **Garazi Kalzakorta**, preziosa, hilaren 22an 7 urte bete zenituelako. Gurasoen eta Maialenen partez, muxu handi bat.



• Zorionak **Irene Mujikari**, urriaren 27an, 5 urte beteko dituelako. Familiako eta bereziki, Iriaki eta Julenen partez, muxu handi bat.



• Zorionak **Asier eta Ekain**, abuztuaren 27an, 11 urte, eta urriaren 24an, 15 urte bete zenituztelako. Gurasoen eta Andrearen partez.



• Zorionak osaba **Jose Inazio** eta **izeko Belen**, urriaren 28an zilarrezko ezteiak ospatuko dituzuelako. Jon eta Iker iloben partez.



*Zorionak **Bea eta Jose**, lagunaren eta familiako partez. Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontza egunean.



*Zorionak **Poul eta Danel**, hilaren 19an, 2 urte eta 28an, 5 urte egingo dituzuelako. Familiako guztien partez muxu handi bat.



• Zorionak zuen **urrezko ezteietan**. Ondo pasatu zapatuan.



Zorionak **Aitor eta Eneko**. Familiako partez, ondo pasa zuen urtebetetze egunean.

24 BARIKAKUA

20:00 ARGAZKI ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA

"Tailer Hiria"

Argazkilaria: Jose Ronco

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkarte

Azaroaren 8ra arte



22:00 ZINE FORUM-A

"El hijo de la novia"

Hizlaria: Eskarne Larrañaga

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea



26 DOMEKIA

9:00 MENDI IRTEERA

Eibarko Urko mendira (Ixuatik)

Irteera: Ikastolatik

Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

11:00 EIBARKO MUSIKA

BANDAREN KALEJIRA

12:30 EIBARKO MUSIKA

BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

ZINE
kluba



"Lundi Matin"

Zuzendaria: Otar Iosseliani.

Antzezleak: Jacques Bidou, Anne Kravz-Tarnavsky, Arrigo Mozzo.

Berlingo Zinemaldian zuzendari onenari ematen zaion Zilarrezko Hartza eskuratu zuen eta ekitaldi bereko Fipresci saria ere lortu zuen. 200i. urtean Donostiako Zinemaldiak atzera begirakoa eskaini zion Iosseliani zinegile apartari. Filmak bizitzearen poza, hedonismoa ditu ardatz eta gizarte aurreratu eta industrian oinanututako arau-balore ekonomiko eta sozialen zalantzagarritasuna iradokitzen digu. Filmaren ahalegin nagusia; ilusioei, pasioei, berezitasunei, giza askatasunari, bizimodu arruntaren gainetik lehentasuna ematea da.

ERAKUSTEKAK

Jose Ronco argazkilariaren erakusketa

Jose Ronco argazkilariaren "Eibar tailer hiria" izeneko argazki erakusketa inauguratuko da gaur, hilak 24, iluntzeko 20:00etan Kultur Etxeko erakusketa gelan. Ongarri Kultur Elkarteak antolatutako erakusketa azaroaren 8ra arte izango da ikusgai. Eibarko industriako eraikin esanguratsuenetako batzuk jaso ditu Ronco argazki erakusketan. Bisita orduak astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 19:00etatik iluntzeko 21:00etara izango dira.

SEXUA

Sexu fantasiak jasotzeko kanpaina

Biluzik Sexologia Zerbitzuak Elgoibarko 16 eta 30 urte bitarteko gazteen sexu fantasiak ezagutu nahi ditu. Honetarako 5-7 lerrotan idatzi beharko dira sexu fantasiak. Idatzi ostean, biluzikzerbitzua@yahoo.es helbide elektronikora bidali edota honako helbidera: Biluzik Zerbitzua. Kultur Etxea. Nafarroa Enparantza 4. 20870 Elgoibar. Ez dago izenik eman beharrik. Sexu fantasiak jasotzeko azken eguna azaroaren 10a izango da.

KONTZERTUAK

Eibarko Musika banda

Eibarko Musika bandak kontzertua eskainiko du domeka honetan, hilaren 26an, Herriko Antzokian. Lehenik kalejiran aterako dira 11:00etan eta kontzertua 12:30ean hasiko da.

LEHIAKETAK

"Elgoibar Herria" kartel lehiaketa

Inazio Bereziartua Musika Eskolak 2004ko "Elgoibar Herria" Instrumentu Taldeen III. Lehiaketarako kartela aukeratzeko lehiaketarako deialdia egin du. Lehiaketako oinarri eta araudiari dagokionez, norberak nahi duen teknika erabili ahal izango da eta ez da adin mugarik izango. Kartelean honako testua agertu beharko da nahita nahiez: Instrumentu Taldeen III Lehiaketa "Elgoibar Herria" III Concurso Conjunto Instrumental. Martxoak 27/28 2004 27/28 marzo. Sari bakarra izango da, 300 euro irabazlearentzat. Originalak helbide honetara bidali beharko dira: Inazio Bereziartua Musika Eskola (Aita Agirre Plaza 4, 20870 Elgoibar). Lanak entregatzeko azken eguna 2003ko azaroaren 6a izango da. Argibide edo oinarriari buruzko zerbait gehiago jakin nahi izanez gero 943 74 21 45 telefonora deitu.

zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"En un lugar de Africa"

24, barixakua: 22:15

25, zapatua: 19:30-22:15

26, domekia: 19:30-22:15

27, astelehena: 22:15

"Lundi Matin" (Z.K.)

30, eguena: 22:15

"Piratas del Caribe"

31, barixakua: 22:15

ga

"Open Runge"

24, barixakua: 19:30-22:15

25, zapatua: 17:00-19:30-22:30

26, domekia: 17:00-19:30-22:30

27, astelehena: 19:30-22:15

28, martitzena: 19:30-22:15

29, eguaztena: 19:30-22:15

111, - -

"Underworld"

24, barixakua: 19:30-22:15

25, zapatua: 17:00-19:30-22:15


26, domekia: 17:00-19:30-22:15

27, astelehena: 19:30-22:15

28, martitzena: 19:30

29, eguaztena: 19:30

BARRENek ez du getta 1 itzleen erabilke
aldaketan erantzukizirik



"En un lugar de Africa"


Zuzendaria: Caroline Link.

Antzezleak: Juliane Kohler, Regine Zimmermann, Merab Ninidze.

+ 13 urte

Hirugarren Reich-etik ihesi, Afrikako bihotzean ezkututzea izango da Redlich familia alemaniarraren aukera bakarra. Juduak izaki, 1938. urteko Alemania nazian ez dute etorkizun handirik. Abokatua izan anen baserri batean hasiko da lanean aita. Burges familia bateko kidea den amarentzat, berriz, gogorra izango da Afrikako bizimodura ohitzea. Alaba segituan bertakotuko da hizkuntza eta ohiturak bereganatuz. Filme honek Atzerriko Filmerik Onenaren saria eskuratu zuen 2002ko Oscar Sarietan.

N
"2




A

ste honetako erretratu zaharra Gemma Monreal margolariak laga digu. Argazki hau 1946. urte ingurukoa da, eta bertan agertzen diren hiru mutiko hauek Monreal anaiak dira, Alfredo, Eloy eta Guillermo, hain zuzen ere. Hiru anaia hauek, 1950. urte inguruan etorri ziren Elgoibarrera, izan ere, beraien aita gure herrira destinatu baitzuten irakasle lanetarako. Urte mordoa daramatzate gure artean bizitzen, eta gaur egunean, elgoibartanak direla esan dezakegu.




I. URTEURRENA
2002ko urriaren 27an hil zen
ARRATE GARATE ZENDOIAren oroimenez
I. URTEURRENEKO MEZA izango da
Elgoibarko Bartolome Deunaren parroki elizan
larunbatean, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



ARRATE GARATE ZENDOIA

Agur Arrate, Arrate agur
ohore ta bi muxu,
gure artetik joan zara, baina
gurekin jarraitzen duzu

Zure sendiak



HERRI BATEN BORONDATEA

LAINOEK ezin dutelako ezkutatu,
EURIAK ezin duelako busti,
HAIZEAK ezin duelako eraman.



Dena lokaztuta egon arren, **ONEZ** segitu nahi dugulako.

LAGUN DIEZAIEGUN IRUNBERRIKOEI IKASTOLA BERRIA ERAIKITZEN

943 74 16 26 telefonora deituta (Elgoibarko Izarra)

Bi diru-kopuru proposatzen dizkizuegu: – 20 euro (langileentzat)

- 10 euro (ikasle eta langabetuentzat)

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte eta Elgoibarko UDALA



*Eskerrik asko
ELGOIBAR!*

Kutxa 2101 0381 05 0011331584

Euskadiko Kutxa 3035 0058 35 0580077630

Caja Rural de Navarra 3008 0042 51 1203795925

SCH 0049 2572 24 2514210130



*12etatik aurrera
pintxoak,
tenaza,
bilarra_*



mig 
LE
TXE

BERRI

Taberna